



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2007/2008 denboraldia

11 ZK.DUN ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2007/2008 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko dute klubak

D. Alaves, Antiguo´ko K.E., Arenas C., Aretxabaleta K.E., Athletic C., Barakaldo C.F., Cultural de Durango, Danok Bat C., S.D. Eibar, Gernika S.C.D., Peña Athletic Santurtzi C.F., Real Sociedad de Fútbol, Romo F.C., Santutxu F.C., Sestao River C., Zaramaga C.F..

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamar jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 9, 16, 23 eta 30; urriaren 7, 14, 21 eta 28; azaroaren 4, 11, 18 eta 25; abenduaren 2, 9 eta 16.

Bigarren itzulia: abenduaren 23; urtarrilaren 13, 20 eta 27; otsailaren 3, 10, 17 eta 24; martxoaren 2, 9, 16 eta 30; apirilaren 6, 13 eta 20.

Partidak larunbat aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi zerro bat jarri dala, beraz partiduak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etara bitartean jokatuak izan beharko dute, logikoki burrukatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari. Gehienez zazpi balizko ordezkoko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Arbitroak

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

7. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2007ko abuztuaren 30n.


JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General